

## LETRAK ETA NUMEROAK

*Letretakoek* beti izan dugu kopuru handiekiko mesfidantza, baita orain, euroa dela-eta zifra horiek zero batzuk galdu dituztenean ere. Bere garaian ez genuen ekonomia behar bezala ikasi eta senak esaten digu numero potoloak darabiltzaten horiek ez dutela ogibide zintzorik. Horregatik, paradisu fiskalak hondartza paradisiakoak dituzten uharteekin lotzen baditugu ere, ez gaitu harritu BBV bezalako banku handi bateko agintariak (ustez) iruzurra egiten harrapatu izana. Edo, hobe esan, iruzurra publikoki eta formalki salatu izanak harritu gaitu, baina ez iruzurra egiteak berak, bai baigenenekien iruzur fiskal potoloena ez zetorrela soldatapeko langileen eskutik.

Errugabetasun presuntzioa errespetatu beharra dago, are gehiago, tartean epaile fikziozale sutsua —jakina, *letretakoa* hau ere— dagoela jakinda, baina badira gauza batzuk *Egunkariaren Ekonomia* gehigarri berriak ere oraindik argitu ez dizkigunak. Esate baterako, BBVren egoitza nagusia Bizkaian zegoenez, ustezko iruzurra Bizkaiko ogasunari egindakoa litzateke, ala? Zenbatekoa litzateke iruzur hori? Urteetan Bizkaiko ogasunak espero baino zerga gutxiago biltzen zituen eta Araba eta Gipuzkoakoek *konpentsatzen* zuten zulo hori: zein proportziotan eragingo zuen horretan BBVren ustezko iruzurrak?

Jende askok aipatu du auzi honen atzean dagoen jokaldi politikoa. Abilezia aparta erakutsi du PPK banku handi baten kontrola eskuratzeko. Harritzen nau, hala ere, beste ondorio politiko batzuei buruz dagoen isiltasunak. Implikatutakoen artean Eusko Jaurlaritzako hiru sailburu ohi daude, hirurak eusko nazionalistak. Ustezko errugabetasuna errespetatuta ere, ez al da hori sekulako eskandalua? Ez al dago erantzukizun politikorik hor? Ez al luke agian Eusko Legebiltzarrak ikerketa-batzordea osatu behar? Zer dio, esan al du ezer, Eusko Jaurlaritzak horri buruz?

Gure ezjakintasuna dela-eta letretakoak ez gara bankariekkin fio. Pixka bat ulertzen hasiz gero, gure mesfidantza zer bihurtuko litzatekeen, auskalo!